

- [Astekaria](#)
  - [Kultura](#)
  - [Gizartea](#)
  - [Hezkuntza](#)
  - [Politika](#)
  - [Nazioartea](#)
  - [Ekonomia](#)
  - [Euskara](#)
  - [Larrun](#)
  - [Hemeroteka](#)
  - [Urtekaria](#)

- [Bereziak](#)
- [Multimedia](#)
- [Blogak](#)
- [Aisia](#)
- [Zerbitzuak](#)
- [Gunea](#)
- [Publizitatea](#)
- [Harpidetzak](#)

## Eskola Txikien 25. Festa aurkeztu dute

2012-04-24



25. festak mugimendu osoa irudikatzea du helburu / Iñaki Alcalde

Ekainaren 3an Larraulen (Gipuzkoa) egingo da aurtengo festa, eta 26 eskolak osatzen duten mugimendu osoaren ordezkaritza bilduko da bertan: 26 eskola txikitako udalak, irakasleak, gurasoak eta ikasleak (eskola horietan ibili ziren zaharrenak eta egungoak).

Festaren aurkezpenean (apirilaren 24an Donostian) Mikel Olano Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundeko lehendakariak azpimarratu du "proiektu hau aurrera eramateko ezinbestekoa dela guraso, irakasle eta udalen elkarlana. Herri bakoitzean hiru eragile hauek batera lan egin behar dute eskola aurrera atera dadin".

Igor Iturain EUDELeko herri txikien ordezkariek eskola hauen pisua nabarmendu du "Gure herrietako eskola txikiak ez dira soilik hezkuntza, irakasten den leku bat. Herriaren bihotza dira. Gure umeak bertan hezi eta ikasteko aukera izateaz gain, herriarekiko lotura sortu eta finkatzeko ezinbesteko bidelagun dira".

Lurdes Imaz Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteko (EHIGE) koordinatzaileak txalotu du eskola hauetan irakasle, ikasle eta gurasoek duten harreman zuzena: "Eskola Txikiak eredu zarete, ongi baitakigu eskola-komunitatearen erlazio estu hori ezinbestekoa dela gure seme-alabek eskola arrakasta lortzeko. Horrelako partaidetza eta erlazio estuak eta onak nahi genituzke ikastetxe publiko guztietan".

Itziar Eizagirre [Larraulgo Guraso Elkarteko](#) kideak ospakizunerako deia egin du: "Ospatu egin nahi dugu, azken lau urteotan Larraulen egin dugun lana, eta lortu dugun guztia: berriz ere eskola zerbitzua martxan jartzea, 30 urtez itxita egon eta gero. Gaur egun 8 urtera arteko zerbitzua dugu, gela izaeraz. 12 urtera arteko eskola izan dadin, Larraulgo Guraso Elkarteak eta udalak bidea egiten jarraituko dugu, orain arte bezalaxe. Horretarako legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditugu, bai ikasle kopuruz zein azpiegituraz".

### Egitaraua

Besteak beste, Pirritx eta Porrotxen emanaldi berezia izango da (hauek ere 25 urte betetzen dituzte, lehen plaza Eskola Txikien Festan egin baitzuten) eta eskola txiki guztiek izango dute aukera pailazoekin oholztan aritzeko. Gorritiren zezen eta pottokak, puzgarriak eta eskulan tailerrak ere izango dira eta festari bukaera dantzan emango zaio, Kupela taldearen erromeriarekin.

### Eskola Txikiei buruzko dokumentalaren estreinaldia

Eskola eredu honen ezaugarriak, 25 urtetako bizipenak eta herrian duten eragina jasotzen duen dokumentala kaleratzeaz da Eskola Txikien Koordinakundea. Festa egunean izango da estrainekez ikusteko aukera.

Publizitatea

**EuskaraAlbiste**

Labayru Hiztegiaren edizio berria aurkeztu da gaur Bilbon  
<http://t.co/gKCuL5cF>

Eusko Jaurlaritzak EAEko V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitza nagusiak aurkeztu ditu.  
<http://t.co/NNnEhC8v>

Euskara sustatzeko hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzak

**k+ e+ MUNDUORO euskaraz**

**CuadraBus**

[vitoria-gasteiz.org/euskara](http://vitoria-gasteiz.org/euskara)

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

**Bilbao**  
UDALA AYUNTAMIENTO

### Iruzkina idatzi

**Izartxoaz (\*) markaturiko datuak derrigorrez bete beharrekoak dira.**

Izena\*

E-posta\*

Beste norbaitek idazten badu abisua ematea nahi duzu?

Idatzi nahi duzuna

Idatzi  
segurtasun  
kodea:



stop spam.  
read books.

Bidali

OPORREN  
kantoia

Jarraitu ARGIA



Facebook



Twitter



RSS-a



Buletina

Gunea



## Irakurrienak

- Edurne Elizondo: "Inori eskatzen ez zaizkion azalpenak exijitzen dizkigute beganooi" [Reyes Ilintxeta](#) - 2012-04-22
- Iñigo Segurola: "Paisaiak bertan bizi den gizartearen diagnostikoa egiten du" [Sustrai Colina](#) - 2012-04-22
- Konposatzen [Gorka Urbizu](#) - 2012-04-22
- Berlingo Euskal Etxea: Alemaniarrek zubia eraiki dute Gernikaraino [Nagore Irazustabarrena](#) - 2012-04-22
- Euskararen kale erabilera Laudion: %3,69tik %9ra hamar urtean [Miel Anjel Elustondo](#) - 2012-04-22

Jaso egunero email bakarrean eguneko 10 albisteak. **Dohainik.**

Idatzi e-posta albiste buletina jasotzeko

**argia.com**

Nor garen | [Kontaktua](#)

[Mapa](#) | [Lege oharra](#) | [RSS Sindikazioa](#) | [W3C](#) [WAI-A](#)

© 2008 ARGIA.com - Komunikazio Biziagoa  
Industrialdea, 15 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
Tlf: 943 371 545 - 943 373 403

## Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia



KULTURA SALA  
Hizuntza Politikario: Seibunondotzak  
Iñaki Irujo



Nizkillo Foru  
Aldundia  
Buletina  
Foru de Bizkaia